



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

2021/12/20an EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 20/12/2021.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Purificación Regidor Varela  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Leire San Vicente Carrillo

#### Idazkaria

#### EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko abenduaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaien buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Eluska Irazu Henández eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 20 de diciembre de 2021 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Eluska Irazu y Ander Errarte.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAC1F39.wC4q>



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

### **1.- ALKATETZAREN ADIERAZPENAK.**

2021ekoo abenduaren 14ra arteko Alkate erabakien berri eman, eta horien laburpena banatuta.

Berariaz eman da 21. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakiaren berri.

Alkateak jakinarazi du ere, aldi batez udaletxetik kanpo eman diren udal zerbitzuek berriz ere, ostegunetik aurrera, abenduaren 23tik, osorik udaletxeen emango direla.

### **2.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO ENPRESA KONTRATISTA GISA CESPAREN ONDORENGOTZA JASO IZANA.**

Udal honek ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko kontratua esleitzeko nahitaezko lizitazio-prozedura izapideztuta, 2018ko abenduaren 4an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak hartutako erabakiz, FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresaria esleitu zitzaiion aipatutako kontratua.

Joseba Koldo Nieto Martín jaunak idazkia aurkeztu zuen 2021eko azaroaren 30ean Udaleko Erregistro Orokorean, eta bertan jakinarazten zen 2021eko azaroaren 11n Merkataritza Erregistroan inskribatuta geratu zela 2021eko irailaren 28an, Luis Maiz Cal Madrilgo notarioaren aurrean, emandako eskritura publikoa (2205 protokolo-zenbakia). Eskritura horren bidez, FERROVIAL SERVICIOS S.A. (FERROVIAL SERVICIOS) enpresak eta CESPA COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresak banantze proiektu komun bat onartzen eta formulatzen dute, zeinaren bidez FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresak zenbait kontratuk osatzen duten unitate ekonomikoa osorik transmititzen dion CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. (CESPA) enpresari. Horrek esan nahi du CESPAri transmititu zaizkiola unitate ekonomikoari (FERROVIAL ZERBITZUAK) lotutako aktibo, pasibo eta enplegatu guztiak. Banandutako ondarean sartzen da, besteak beste, ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko kontratu administratiboa.

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno Extraordinario

2021/12/20



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Administrazio-kontratu honi aplikatu beharreko legeria Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotakoa da, eta lege horretako 98. artikuluak honela dio hitzez:

*1. Sozietate kontratistak enpresen bat-egite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bat-egitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde beregatzailarekin; izan ere, erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztiak subrogatuko da. Era berean, enpresen (edo haien jarduera-adarren) zatiketa, ekarpenea edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua eskuratuko duen erakundearekin; erakunde horrek kontratutik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak hartuko ditu subrogazio bidez, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzera debekatua ez badu eta kontratua adjudikatu zenean beharrezko ziren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu edota aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek eta zatitutako ondare, enpresa edo adarren iturburua den sozietateak –artean irauten badu– harenkiko erantzukizun solidarioa hartzen badute kontratua egikaritzeari dagokionez. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen erakundeak beharrezkoak diren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela iritziko zaio ondorio guztiarako.*

Aurreko ondoreetarako, enpresak kontratacio-organoari komunikatu beharko dio gertatutako inguruabarria.

*Lehenengo paragrafoak aipatzen dituen merkatari-eragiketen ondorioz kontratua beste erakunde batir esleitzten zaionean, behin betiko bermea, hura ematen duen erakundearen irizpidearen arabera, berritu ahalko da edo erakunde berriak izenpetzen duen beste berme batekin ordeztu ahalko da, kontuan hartuta azken erakunde horrek dauzkan arrisku-ezaugarri bereziak. Kasu horretan, aurreko behin betiko bermeak bere indarraldiari eutsiko dio berme berria eratu arte.*

CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. (CESPA) enpresak egiaztatu du esleipena erabakitzerakoan eskatutako kaudimena.

Aurrez esandakoa kontuan hartuta eta Hirigintzako eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz eta bertaratutako udal batzarkide guztiekin alde bozkututa, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Jasotza CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresa FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresaren ondorengoa izango dela ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN kontratista gisa.



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

BIGARRENA.- CESPA COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari eskatzea nahitaezko fidantza jar dezala, 5.109,61 eurokoa, erabaki hau jakinarazi eta zazpi egun balioduneko gehieneko epean.

HIRUGARRENA.- Behin betiko fidantza osatu ondoren, FERROVIAL SERVICIOS S.A.k Banco Bilbao Vizcaya Argentaria S.A.k FERROVIAL SERVICIOS, S.A.ren alde emandako 0182000941355 zenbakiko abalaren bidez eratutako 5.109,61 euroko fidantza itzuliko da. Fidantza hori ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN kontratua zuzen beteko zen berme bezala jarri zen.

### **3.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, SEGURTASUN SAILAREN BITARTEZ, ETA ERKIDEGO HORRETAKO UDALEN ARTEAN ERTZAINTZAREN ETA UDALTZAINGOEN LANKIDETZARAKO SINATU BEHARREKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEA.**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkututa, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Segurtasun Sailaren bitarbez, eta erkidego horretako udalen artean Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen lankidetzarako sinatu beharreko lankidetza-hitzarmenari atxikitzea.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

### **4.- ESKORIATZAKO UDALAREN 2022ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA (Aurrekontua Betearazteko Arauaren 13. artikuluaren aldaketa barne).**

Hitza emanda, ondorengoeik hitz egin dute:

- Josu Ezkurdia: iaz, pandemiaren ondorioz, aurrekontuak hankaz gora jarri behar izan genituen, eta aurten normaltasunera gehiago egokitzen diren aurrekontuak aurkeztea lortu dugu, bai gastuen aldetik, bai diru-sarreren aldetik. Gure agintaldiko aurrekontuekin bat datozen aurrekontuak aurkezten ditugu, eta horiekin, inbertsio eta dirulaguntza arrunten aldeko apustua egin nahi dugu. Hori esanda, eta zenbakiei helduz, esan daiteke 5.321.120,10 euroko aurrekontua dela, iazkoa baino % 3,2 gehiago. Hori posible izan da Foru Funtsa bere normaltasunera itzuli delako: guztira 3 milioi euro inguru izango dira, hau da, iaz aurreikusten genuena baino % 11 gehiago. Inbertsioei buruzko gure kapitulua ia osorik finantzatu ahal izango da gehikuntza horri



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

esker. Hori esanda, langileen gastuak Estatuko aurrekontuekin bat datorren igoera txiki bat du, gastu arruntari eusten saiatuko gara, jarduera eta dirulaguntza arruntei eutsi ahal izateko eta ahalik eta inbertsio handienak egin ahal izateko. Hori esanda, inbertsioen kapituluari dagokionez, aipagarrienak lehen sektoreari zuzendutakoak dira, 103.000 euro inguru, argiztapena eta baserrietarako bideak hobetzena bideratuak; era berean, nabarmentzekoa da Dorletan haur-parke bat egokitzen aurreikusitako 80.000 euroko partida, proiektua martxan dago eta aurrekontua onartzen denerako obrak lizitatu ahal izatea aurreikusten da; Luis Ezeizan ere egingo dira jarduerak, 50.000 euroko aurrekontua izango dutenak, aurten hasitako hobekuntzakin jarraitzen. Eta azkenik, partida txikia bada ere, 15.000 euro dira, aipagarria dela uste dut: aurten Bidebarrietarako bidearekin egin den bezala, datorren urtean hainbat konponketa egin nahi dira Gatz bidean, herritarrei aisialdirako guneak eskaintzen, batez ere pandemia-garai hauetan beharrezkoak direnak. Eta aldez aurretik nire eskerrak ematen dizkiet gainerako bi udal taldeei, aurrekontu hauek historikoak izango direlako, ez zenbatekoagatik, baizik eta talde guztien aldeko botoarekin onartuko direlako, eta hori pozteko arrazoia da.

- Leire San Vicente: elizateetan bi proposamen egin genituen aurrekontuei buruz. Ez dute eragin ekonomikorik, partida batetik bestera egindako transferentzia delako, eta horrela konpentsatzen dira. Elizateetako bideak mantentzenko partida 8.000 eurotik 15.000 eurora igotzea eskatzen genuen, jarduteko tarte handiagoa izateko, eta proposatzen genuen elizateetako inbertsioen partidatik transferituz finantzatzea, hau da, partida hori 25.000 eurotik 18.000 eurora jaitsiz. Proposamen hori egin genuen, eta eskertzen dugu onartu izana. Eta hori bai, ikusi beharko da zer nolako bilakaera duen elizateen arteko taxi-zerbitzuak, eta sor daitezkeen beharren arabera, finantzaketa formulak proposatu.
- Nestor Arana: gure aldetik hiru zuzenketa aurkeztu genituen, baina ikusi dugu proposamenean jada jasotzen direla iaz proposatu genituen zuzenketa batzuk. Horretaz gain, planteatzen diren beste jarduketa batzuekin ados gaudet, eta horregatik, oro har, proposamenarekin ados gaudela adierazten dugu. Gai garrantzitsuenak laburbildu eta aipatzearren, ikusten dugu bere garaian GOIENARI aitortzen zitzaien laguntzara itzultzen dela, eta oso begi onez ikusten dugu puntu hori. Guretzat gai kritikoa edo funtsezkoa izan da gure adostasuna emateko. Bigarren gaia Pauso Berriak proiektua da. Gure proposamena onartu egin da, eta proposamen hori oso garrantzitsutzat jotzen dugu adinekoei dakarkien onurari begira. Zenbatekoari dagokionez, ez da asko, 2.000 euro inguru, baina esanahi handia du. Bada proposamen bat ez dena sartu, lehen sektoreari dagokiona, makineria erosteko lagundu nahi genuena. Gure ustez, lehen sektorearen egoera kritikoa da, eta pandemian ikusi da zer-nolako garrantzia duen. Duen garrantziagatik tokiko ekoizpena sustatu eta lagundu behar dela uste dugu. Proposamen hori ez da sartu, baina eskaini egin zaigu, eta oso begi onez ikusi dugu, "Elizateak" taldearekin lan egingo dela. Uste dugu elkarlan horrek gaiaren ikuspegi egokiagoa izaten lagun dezakeela, eta oso begi onez onartzen dugu. Luis Ezeizan zenbait jarduketa egin dira, eta beste hobekuntza batzuekin aurrera egitea planteatzen dela ikusi dugu; gai hori planteatu genuen, eta ikusten dugu kontuan hartzen dela. Gatz Bidean ere jarduerak egitea aurreikusten da, eta horri esker, Josuk aisialdiari buruz esan duena ez ezik, herritar talde batek Leintz



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Gatzagarekin elkarlanean egindako lana ere sustatu daiteke. Trantsizio energetikoari dagokionez, plan bat eginda dago, legezko betebehar bat dugu, eta ondorio berera iritsi gara: plan hori zehazteko unea dela, kontsumoak non murriztu daitezkeen ikusteko, non aurreztu daitekeen energia eta non lor daitekeen autokonsumo handiagoa. Gure ustez, azterketa bat egin behar da, hurrengo urteetan udal-baliabideak modu eraginkorragoa erabil ditzagun. Guretzat hori estrategikoa zen, eta bat gatoz proposamenarekin. Uste dut ez dela beharrezkoa aipatzea aurten Dorletako pasabide egiteko obrak, Bidebarrietako bidea konpontzekoak edo Intxaurtxuetako irisgarritasuna hobetzeko plana martxan jarri dituzuela. Horregatik guztiagatik, zuen proposamenari, oro har, babesa ematea erabaki dugu.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin bozkatuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Hasiera batean onartzea 5.321.120,10 €-ko udal aurrekontua.

**Bigarrena.**- 2022ko aurrekontua betearazteko araudia eta 2022ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena.**- Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

## **5.- 2022. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.**

Eztabaidatuta eta bototara jarrita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, 7 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1) eta bertaratutako beste 2 zinegotziek (EH BILDU) aurka bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.**- 2022. urterako eta ondoren esango den bezala aldatzea Udal honetako lanpostuen zerrenda:

1.- Hutsik dagoen “udaletxeko garbitzailea” lanpostua amortizatzea.

**BIGARRENA.**- 2022rako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea, aurreko puntueta erabakitako amortizazioa kontuan hartuta.

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno Extraordinario

2021/12/20



### **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

**HIRUGARRENA.-** Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15 egun balioduneko epean interesdunek azter ditzaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri Udalbatzarrari.

Erabakiak behin betiko onartutzat joko dira aipatutako epean ez bada erreklamaziorik jartzen; eta ondorio horietarako, Alkateak behin betikotzat joko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo bazterzeko eta plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketak behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

### **6.- DIRULAGUNTZEN 2019-2023 PLAN ESTRATEGIKOAREN EGOKITZAPENA**

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez zenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluaren c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2019ko abenduaren 17an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horrek, 4. eta 11. artikuluetan, eranskineko dokumentuetara bidaliz, 2021eko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2022ko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitutako behar dira.

Aurrez esandako guztia ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 1. ERANSKINEAN jaso bezala eguneratzea 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoaren ERANSKINAK, plana 2022ko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeo.

### **7.- MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREKIN BAT EGITEA.**

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak ERABAKI DU



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALERA atxikitzea. Itun horren testua hitzez hitz transkribatzen da ondoren:

### **“JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA”**

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomenoa, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintza obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioran zein giza eskubideen zuzenbidean. Dimentsio arauemailea duka. Etorkinek, asilo-eskatzaleek, Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarrek (BGAA), iragaitzazko migratzaleek edo zaugarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrok dituzte, eta eskubide eta betebehar horiek bideratu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonekiko erreakzio individual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeko aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna. Migrazioari dagokionez, jaso beharko genukeena eskaintza da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du. Herrialderik aberatsenek modu egokian jakin izan dute migrazio-fluxuak eta kultura-anitzasuna integratzen. Faktore hori erronka demografikoarekin lotuta dago. Europako gizarteak eta, bereziki, euskal gizarteak, immigrazioa behar dute ongizate-ereduari eutsi ahal izateko.

Hala ere, migratzialeak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamautako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredu eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabeen. Sintoma kezkagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitorpenak atzera egiten du; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa duka. Migraziorako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiekzio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaleen beharrizanei dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearren hazkunde- eta aurrerabide-prozesuaren parte gisa



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

heltzea.

**ABIAPUNTUAK.** Migraziorako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu:

**A. Premisa politikoa: pluraltasuna.** Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri batzuetako pertsonei irekitako euskal gizartea defendatzen dugu, pluraltasunaren balioekin konprometitutako eta herritarasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

**B. Premisa etikoa: elkartasuna.** Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertoko esku bide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

**C. Premisa pragmatikoa: beharrizana.** Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharrizanei erantzun ahal izateko. Euskadien ondorengo hamarkadetako hazkundeari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

**ZEHARKAKO AUKERAK.** Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

**I. Bizikidetza.** Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuiatu egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoen oinarritutako diskurtso estigmatizatzaleak.

**II. Giza Eskubideak.** Oinarrizko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltza sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.

**III. Zeharkakotasuna.** Euskal administrazioen sektore-politiketan (enplegua, kultura, etxe bi. zitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna,...) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.

**IV. Kohesioa.** Irmotasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarrizko prestazio sozialen unibertsitasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

**V. Hezkuntza.** Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integratzaileko eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

**VI. Tokiko esparrua.** Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetza hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehentasuneko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

**VII. Berdintasuna.** Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetza eraikitzeko oinarrizko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta.

**VIII. Hizkuntzak.** Gizarte hartzaleko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integratzaileko eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

## **Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno Extraordinario

2021/12/20



## Idazkaritza-Kontuhartzaileta

**IX. Lankidetza.** Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetza. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

**KONPROMISO ZEHATZAK.** Aurreko guztiaz gain, erabateko babes ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenari, dagozkien eskumen-esparruetan:

- 1. Erantzunkidetasuna.** Beste eragile batzuekin lankidetzan aritza, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetza leialean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.
- 2. Irmotasuna.** Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektoralra lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.
- 3. Immigrazio erregularizatua.** Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europaren planteatzen dituen beharrizanak.
- 4. Asilo-eskatzaleak eta errefuxiatuak.** Nazioarteko babes-eskatzaleen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europaren, estatuan eta Euskadin.
- 5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak.** Behar diren baliabideak eskaintza zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarriz emakumeengana, adingabeengana eta giza eskubideen urraketen biktimengan.
- 6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak.** Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzazko migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitariora eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.
- 7. Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarra (BGAA) eta Bidaiderik Gabeko Gazte Atzerritarra (BCCA).** Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharrei, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.
- 8. Esku-hartze humanitarioa.** Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.
- 9. Prebentziozko esku-hartzea.** Lankidetza-proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobreziaaren, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.
- 10. Bizikidetzaren kultura.** Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuiatuta.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:25ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno Extraordinario

2021/12/20



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

### **ERANSKINA**

#### **DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2022eko EKITALDIRA EGUNERATZEKO PROPOSAMENAREN ZIRRIBORROA**

#### **LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU ZEHATZAK ETA LAGUNTZA PROGRAMAK ETA LERROAK. (2022eko EKITALDIA)**

##### **1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.**

###### **1. Helburu estrategikoa:**

Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, parte hartzen duten eragileen profesionaltasuna bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

###### **2. Helburu zehatzak:**

1.- Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

2.- Herritar orori zuzendutako ondorengo diciplinetako sorkuntzara, ekoizpenera eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.

3.- Gazteen parte hartza lagundi, zabaldu eta sustatza gazteentzako jarduerak antolatuz.

4.- Euskal historiaren eta kulturaren –bereziki, Eskoriatzakoarenak– balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak lagundi, zabaldu eta sustatza.

5.- Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak lagundi, zabaldu eta sustatza.

###### **3. Egikaritze epea:**

Urteroko deialdiak.

###### **4. Finantzazio iturriak:**

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

###### **5. Dirulaguntzak emateko prozedura:**



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak norgehiagoka procedura bidez edo aurrekontuan laguntha izendunak dituzten elkarteen egindako hitzarmen bidez emango dira.

### 6. Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialditarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetza hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.

#### **A) Dirulaguntza lerro zehatzak**

##### **A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.**

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrieta ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jarduerei diruz laguntzea.

LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintza eta herritarren eta kultur elkarleen parte hartza eta lankidetza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

##### **B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Beheko Errota musika eskola diruz laguntzeko programa.**

HARTZAILEAK: Beheko Errota musika eskola.

HELBURUA: "Beheko Errota" musika elkartea pribatua aspalditik Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzea, eta eskoriatzarrei musika formazioa emateko eta musika zabaltzeko lanetan laguntzea.

LORTU GURA DENA: Musika eskola zerbitzua ematea eskoriatzarrei eta kontzertuak eskaintza.



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Diru laguntza izenduna, hitzarmen erregimenean

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 50.000 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0400.481.326.10.01 partida

### **C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ORRI-PUNTUAK AUKERATZEKO LEHIAKETA**

**HARTZAILEAK:** Eskoriatza herritarrak.

**HELBURUAK:** Datorren urtean, hau da, 2022an, udal bibliotekan erabiliko diren orri-puntuak aukeratzeko lehiaketa.

**LORTU GURA DENA:** Irakurzaletasuna sustatzea gizartean gehiago ezagutzera emanet biblioteka zerbitzua.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Norgehiagoka.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 150 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0400.480.332.10.01 partida

### **D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LEHIAKETAK.**

**HARTZAILEAK:** Udalak antolatutako lehiaketetan parte hartu nahi duten eskoriatzarrak.

**HELBURUAK:** Antolatutako lehiaketetan herritarren parte hartza sustatzea sariak zuzenean emanet irabazleei.

**LORTU GURA DENA:** Herritarrak aktiboak izatea eta parte hartza kultur tradizioak indartzeko eta herriko kultur jarduerei eusteko Udalak antolatutako lehiaketetan.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Deialdi publikoa. Lehiaketa.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 1000 euro

**FINANTZIAZIOA:** 0400.480.334.00.01 partida

### **E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA**

**HARTZAILEAK:** Arizmendi Koop. Elkartea



### **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

**HELBURUAK:** Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntzaa urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzeko.

**LORTU GURA DENA:** Gastronomia, artisautza eta euskal folklorearen protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean

**KOSTEEEN AURREIKUSPENA:** 2.000 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0400.471.431.10.01 partida

### **F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza.**

**HARTZAILEAK:** TEPEZ Elkartea

**HELBURUA:** Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza. Besteak beste hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, umeentzako ekintzak, "zapatista eguna" eta sukaldaritza tailerrak antolatzen dira.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 1.500 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0400.481.334.50.01 partida

### **2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENA.**

- Helburu estrategikoa:

Herriar guztiei beraien kirol eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi kalitatea hobetzeko jarduera osasunariak sustatzea kirol erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz.

- Helburu zehatzak:

**Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasunari eta gomendagarri bezala.**

**Elkartegintza sustatzea kirola egitearen ondorioak optimizatzeko modu bezala.**



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Herriko kirol elkarteekin elkarlanean aritza jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea hobetzeko.

Lagatako kirol instalazioen kalitatea hobetza eta herritarrek horiek erabiltzea.

Oinarrizko kirol federatua sustatzea kirol elkartetan.

Eskola kirola sustatzea ikastetxe publikoetan eta hitzartutako pribatuetan.

Kirola kalean egitea sustatzea.

- Egikaritze epea:

Urteroko deialdiak.

- Finantziazo iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera, ekarpen publiko edo pribatuekin osatu ahal izango direnak.

- Dirulaguntzak emateko prozedura:

Norgehiagoka, eta zehazki, lerro zehatz bakoitzean adierazitakoa.

- Dirulaguntza lerro zehatzak:

### **A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskola Kirola**

HARTZAILEAK: LEK

HELBURUA: Urteetan Leintz Eskola Kirola, beste udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eskualdean eskola kirola sustatzeko egiten ari den lana bultzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskola kirola sustatzea 3. LH-tik 2. DBH-raino

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 32.055,62 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.10.01 partida

### **B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Kirol Elkartea**

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno Extraordinario

2021/12/20



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

HARTZAILEAK: Eskoriatza Kirol Elkartea.

HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntza kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Kirola egitea sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 33.200 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.20.01 partida

#### **C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteenetzako dirulaguntzak.**

HARTZAILEAK: Egoitza edota jarduera eremua Eskoriatzan duten herritar taldeak eta kirol elkartea.

HELBURUA: Herriko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteeek eta taldeek urtean zehar egingo dituzten jarduerak diruz laguntza. Azken helburua da kalitatezko kirol jarduerak eskaintzea herrian, eta herritarren parte hartzea sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 5.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.00.01 partida

#### **D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza KARATE ATAMA ELKARTEARI**

HARTZAILEA: KARATE ATAMA ELKARTEA

HELBURUA: Karate Atama Elkarteari diruz laguntza urtean zehar antolatzen dituen kirol jarduerek sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Kirol hori eta autobabes teknikak sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

**FINANTZIAZIOA:** 0400.481.341.70.01 partida

#### **E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ARIZMENDI KIROL ELKARTEA**

**HARTZAILEAK:** Arizmendi Kirol Elkartea

**HELBURUA:** Arizmendi Kirol Elkarteari diruz laguntzea pilota, areto-futbola eta igeriketa taldeak sustatzeko egiten duen lana egiteko.

**LORTU GURA DENA:** Pilotako, areto-futboleko eta igeriketako benjamin eta alebin taldeak dinamizatzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 2.500 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0400.481.341.80.01

### **3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA**

- Helburu estrategikoa:

Eskoriatzarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea.

Pertsonen, familien eta gizarte taldeen, batez ere bazterketa arriskuan baldin badaude, berri izateko eta hainbat egoera prebenitzeko eta esku hartzeko mekanismoak sustatzea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden herritarren gizarteratzea sustatzea.

Herriko emakumeen eta hirugarren adinekoen elkarteen jarduera parte hartzaleak, prestakuntza ematekoak eta ludikoak antola dezatela sustatzea.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak sustatzea eta elkarteen eta erakundeen parte hartzea eta jarduerak bultzatzea arlo honetako udal eskuduntzak garatzerakoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Herri txiroenen garapenean laguntzea herritarren sentiberatasuna handitzeko ekimenak sustatuz eta bizi baldintzak hobetzen laguntzea elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako dirulaguntzak emanet.

Hirugarren adineko pertsonei arreta duina bermatzea egoitzan.



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

- Helburu zehatzak:

Gizarte zerbitzuetako baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden kasuei oinarrizko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak, norbanakoak eta familiakoak estaltzea.

Zaitasun edota gizarte arrisku egoera murrizteko edo desagertzeko lan egitea.

Arazoak edo zaitasunak agertzea ekiditea, arrisku faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, erakundeekin jarduera koordinatua indartzea eta gizarte parte hartze aktiboa sustatzea.

Jubilatuen elkartea eta emakumeen elkartea jarduerak egitea sustatzea eta erabiltzen dituzten lokal sozialak mantentzen laguntzea.

Herriko GKEei laguntza beraien ekimen eta lankidetza proiektuetan herri pobrentzako eta garapen bidean daudenetzako ekarpen gisa.

- Egikaritze epea: Urteroko deialdiak.
- Finantziazo iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Dirulaguntzak emateko procedura:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak procedura hauen bidez emango dira: norgehiagoka, aurrekontuan izenarekin agertzen diren erakundeekin hitzarmen bidez tramitatuta eta interes sozial, ekonomiko edo humanitarioarenengatik zuzenean emateko laguntza lerroak.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialditarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetza hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.

- Dirulaguntza lerro zehatzak



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

#### **A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza Olazar jubilatu elkarteari.**

HARTZAILEAK: Olazar jubilatu elkartea.

HELBURUA: Olazar jubilatu elkarteari diruz laguntzea beraien ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako nagusien bizi kalitatea hobetzea eta herrian parte hartze handiago izan dezatela sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.337.10.01 partida

#### **B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Diru laguntzak GKEei**

HARTZAILEAK: Beraien jarduera programaren helburuarekin bat etorri eta Eskoriatzan egoitza duten edota jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde edo elkartea (GKE).

HELBURUA: Gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak ematea garapen bidean dauden herrietako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetzera zuzendutako garapenerako lankidetza programak gauzatzeko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan presentzia duten gobernuz kanpoko erakundeen bidez lankidetza projektuen garapenean laguntza, eta era berean, herritarren artean boluntariotza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 7.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.20.01 partida

#### **C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: TRATAMENDUAK JASOTZEKO DIRULAGUNTZAK.**

HARTZAILEAK: substantzia batekiko edo bestelako menpekotasun bat duten herritarrak.



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

HELBURUA: Tratamendua jasotzeko bidaia gastuak ordaintzea.

LORTU GURA DENA: Drogamenpekotasuna duten eskoriatzarrei osatzeko tratamendua eskuragarri egitea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.480.231.60.01 partida

### **D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Beraien jarduera gizarte ekintzetan egiten duten elkarteenetzako dirulaguntzak.**

HARTZAILEAK: Beraien jarduera Eskoriatzan egiten duten edo eskoriatzarrak hartzen dituzten edo eskoriatzarrei zerbitzuak ematen dizkienetan legez eratutako eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatutako eta programa honetako helburuarekin bat datozen elkarrean.

HELBURUA: Beraien jarduera gizarte ekintzaren arloan egiten duten elkarteei dirulaguntzak ematea beraien funtzionamendu gastuetarako zein beraien elkarrearen jardueraren xede diren taldeei zuzendutako programa zehatzak egiteko edota zerbitzuak emateko.

LORTU GURA DENA: Administrazioaren gizarte ekintzaren lan osagariak egiten dituzten elkarrean jarduerak sustatzea eta elkarreko horiek herrian izatea bultzatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: Guztira: 5.700 €:

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.00.01 partida: 4.700 €

0300.481.231.60.01 partida: 1.000 €

### **E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza: Larrialdi plana.**

HARTZAILEAK: behar beste baliabiderik ez duten herritarren.

HELBURUA: dirulaguntza ematea premia egoeran daudenei.



### **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

LORTU GURA DENA: gizarte talde ahulenen oinarrizko beharrei erantzutea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 65.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.480.231.30.01 partida

### **F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntzak etxegabetuei**

HARTZAILEAK: etxegabetuak eta kaleratzeak STOP

HELBURUA: Etxegabetuei beraien defentsarako eta aholkularitzarako zein Kaleratzeak STOP taldeari etxegabetuei laguntzeko beraien ohiko jarduerarako dirulaguntza ematea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan egon daitezkeen etxegabetzeei erantzun bat ematea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Zuzena

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.480.231.80.01 partida

### **G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA**

HARTZAILEAK: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Egoitza egokitzeko obrak egiteko Fundazioak eskatutako eta finantza-erakundeek emandako maileguen amortizazioa finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonei. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitza.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.471.231.91.01



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

#### **H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEA**

HARTZAILEAK: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEA

HELBURUA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDUKO ELKARTEAk Atxorrotx egunean bakarrik ongintza edo gizarte helburuekin jartzen duen tabernak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Taberna jarduerarekin lortutako irabaziak handitzea, irabazi horiek ongintza helburuetarako erabiltzeko.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.21.01

#### **I) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JANARI BONOAK**

HARTZAILEAK: 6 hilabetean behin oinarrizko gizarte-zerbitzura bazkarirako laguntza eskatzen joaten diren iragaitzazko bidaiaiak.

LORTU GURA DENA: Iragaitzazko pertsonek janari aldetik dituzten oinarrizko beharrak arintzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Zuzena

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 800 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.480.23011.01

#### **J) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Laguntza ematea "PAUSO BERRIA" programari.**

HARTZAILEA: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Beraien mugetara egokitutako lan esperientziaren bidez laneratzeko zaitasunak dituzten kolektiboetako jendeari, adimen urritasun ez larria dutenei esaterako, lan aukerak gehitzea.

LORTU GURA DENA:

- Minusbaliotasunak dituzten kolektiboentzako gizarteratze normalizatua bultzatzea lan jardueraren bidez.



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

- Garapen pertsonala eta lanerako aukerak hobetzea.
- Gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzen saiatzea, babesgabeko kolektiboei diskriminazio positiboa eginez.

**DIRU LAGUNTZA MOTA:** Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

**2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 3.000 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0300.471.231.90.01 aurrekontu aplikazioa.

**D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA: COVID-19aren AURKAKO HIGIENE ETA BABES NEURRIAK**

**HARTZAILEA:** Jose Arana Fundazioa.

**HELBURUA:** COVID-19aren pandemia dela-eta beharrezko higiene eta babes neurri bereziak ezartzeko materialen erosketa finantzatzea.

**LORTU GURA DENA:** Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizi- eta jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonei. Eta Eskoriatzako Udalak intereskotzat jotzen du Fundazioari laguntza betebehar hauetan: COVID-19aren aukako babes materiala izatea eta Fundazioaren jarduerarengatik eskatzen zaizkion desinfekzio lanak egitea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

**2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 2.000 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0300.481.231.92.01

**L) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LAGUNTZAK GKE-EI URTEROKO PROIEKTU EDO PROGRAMETAN AURREIKUSI GABEKO PREMIA BEREZIKO EGOEREN AURREAN.**

**HARTZAILEA:** Irabazi asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundeak, beraien jarduerak salbuespenezko edota aurreikusi ezinezko egoera berezietan edo larrialdietan dauden elkarteei, erakundeei edo pertsona fisikoei zuzenduta daudenak.

**HELBURUA:** udal gizarte laguntzen beste programaren batean aurreikusita ez dauden eta esku-hartu behar dela uste diren gizarte intereseko beharren aurrean dirulaguntza ematea.



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

**LORTU GURA DENA:** Gizakiak edo natura-hondamendiek sortutako aurreikusi ezinezko egoerak arintzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Zuzena

**AURREIKUSITAKO KOSTUA:** 2.350 €

**FINANTZIAZIOA:** 0300.481.230.22.01

### **LL) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ENERGIA BONOA**

**HARTZAILEAK:** Baliajide ekonomiko mugatuak dituzten Eskoriatzako norbanakoak eta familiak.

**HELBURUA:** 2022-2023 neguan etxebizitzetako energia eta gas gastuaren igoera ordaintzeko laguntzak.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Norgehiagoka.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 10.000 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0300.480.231.31.01.2021

### **4. LERRO ESTRATEGIKOA: ALKATETZA.**

- Helburu estrategikoa:

Udal taldeei Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikuluan aurreikusitako diru zuzkidura bermatzea.

Erakundeen arteko lankidetza sustatzea eta udalaz gaindiko interesa duten programak garatzen laguntzea.

- Helburu zehatzak:

1.- Aurrekontu kreditua izendatzea udal taldeak diruz laguntzeko.

2.- Ondare historikoa gordetzen eta mantentzen laguntzea.



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

- Egikaritze epea:

Urterokoan.

- Finantzazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Dirulaguntzak emateko prozedura: Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana aurrekontua betearazteko arauan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

Dirulaguntza lerro zehatzak

